

Pizpilluen arbolia zein den ez dakizula?

Udabarro loratzen da Valdespina jauregi osteko lorategixan. Bere lore larrosak danok ezagutzen doguz, baiña "Pizpilluen arbolia" deitziaren zergaitixa akordura ekarri nahi izan doguz oinguan.

Aho zabalik eta siñistu eziñik geratu nintzan gaztetxo batek arbola hori zein zan ez zekixala aitxatu zostanian. Ai ama, hain txarto transmitidu ete doguz Ermuko gauzak? Ze-ozet idatzi bihar neban. Arbolia-aren gaiñian berba einda ga-oz behiobehin aldizkari honen orrixetan, baina latigua barri-ro!

Udalak halan eskatuta, Jose M^a Marcos biólogo ermuarrak haren gaiñeko informaziñua batu eta liburuxka baten emon zan argira 1999an. *Magnolia soulangiana* da bere ize-na, askoren ustetan lorategi-xetako zuhaitzik ederrena. Lore haundi eta ugarixak er-netzen jakoz, barrukaldetik zurixak eta kanpokaldetik larrosa kolorekuak, hostuak bai-ño lehen zabaltzen diranak. Ikusgarrixa, benetan edarra da lorak botatzen ditzuan bi sasoietan, udabarrixakin ba-tera indartsu eta abuztuan makaltxuago.

Itxura guztien arabera, Jose Nepomuceno de Orbek, bere

botanika zaletasunagaitxik ezaguna zan Valdespinako IV Markesak ekarri zeban Fran-tzitik. Baina Markesen krixada frantsezen batek ekarri ete zebala be entzun izan da... Ehundik gorako urte gure on-duan emon ostian, 1989an gaixotu eta jausi egin zan; be-re kimu bat sartu zan barriro bertan, lorategixan eskinan, barruko zein kanpokuak ondo ikusteko moduko lekuan. Eta palaziua ondiñok Markesena zan denporetan, jausten jazo-zan lorak ziran hain justu ba-rruko eta kanpokook alkarren artian genduan jabego komun bakarra.

Alfonbratuta egoten zan dana, kamiñura arte, eta umion olgetia izaten zan arbolapian parau eta lurrera jausitxako lore aletxuak ahora sartzia. Arratsaldepasia luze juaten zan; txistuakin busti eta busti lorok eta aho ba-rruan puzpilla, burbuja bat ei-txia izaten zan gauzia, haren gustu mingots eskasari ixa-ixa erreparau barik. Petaluak ze-



resan haundixa zekela ikasi genduan: aukeran jausi barri-xak izan bihar ziran, zartatu edo usteltzen hasi bakuak... ontxuenak topatzen emoten genduan denpora mordua! Lo-rian ebagirik txikixenak kaka-tara botatzen zitxuan gure as-mo danak. Ekin eta ekin, ba-tzutan baina alperrik izaten zan ditzosozko puzpilliori eta-ratzia; oin, lortu ezkerro... ja, esateko eukitzen genduan!

Urte batzuk pasatu dira txi-

kixa koskondu eta lorak emo-ten hasi dan arte. Ohitxuria dakat, arbola-ipurdira hurre-ratu eta lorarik egokixena to-patzen. Gustua ez jako alda-tu; benetan da mingotsa, es-kasa... Sarritxan ahalegindu naz puzpillagintzan, baiña ne-re akorduz kale beti! Eta zer pentsatua be emon izan dos-ta: estilo honetako abilida-diak ume denporetarako erre-serbatzen ete dira?

Estibalitz Gonzalez



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

MUGA



KIROLAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA